


MUNDUKO KROSS TXAPELKETA ZORNOTZAN

Zornotzan martxoaren 28an egin ziren Munduko Kross Txapelketak izugarrizko arrakasta izan zuen. Kirol arloan Kenyak nagusitu zen, hiru lasterketa irabazi bait zituen Afrikako herrialde honetako korrilariak. Antolaketa ezin hobea izan zen eta horrela aitortu zuten atzerritik etorritako kazetariak, IAAF erakundeak eta Eusko Jaurlaritzaren kirol arduradunak. Zornotza herriaren izena mundu guztian entzun zen egun horretan eta bertako biztanleak harro sentitu ginen.

Karrera eguna heldu baino lehen, zornotzarrok zirkuitora hurbildu ginen antolaketa lanak ikusteko. Jauregi barriako zelaia itxura ederra zuten. Bertatik pasealdi bat egiteko irritan geunden asko ta asko, baina zirkuitoa erabat itxita zegoen publikoak hainbeste hilabeteetan egindako lana azken momentuan bertan behera utz ez zezan.

Eta azkenean heldu zen egun seinalatua. Martxoaren 28a. Eguzkiak ez zuen galdu bertan egoteko aukera eta goizeko lehen orduetan bere berotasun goxoa eman zigun. Baina orduak aurrera joan ahala izkutatu egin zen. Hala ere euriak ez zuen tokirik izan, zorionez, eta bertan bildu ziren 20.000 lagun inguruk lasterketa ikusteko aukera ederra izan zuten.



Lehendabiziko lasterketan, emakumezkoetan eta junior kategoria barruan, jendea aho zabalik geratu zen, Kenyako hiru neskak, ortozik eta asko sufritu gabe, lehengoko postuetan aritu bait ziren lasterketaren hasieratik amaierarte. Ez zen normala ikusten genuen gehiagokotasuna. Suerte zela uste genuen. Baina zera. Hurrengo karreran, gizonetzkoetan, gauza berdina gertatu zen. Kenyarrak lasterketaren buruan jarri eta helmugaraino heldu ziren gainontzeko korrikalariak atzean utziz. Orduan konturatu ginen kenyarrak den dena irabaxzteko prest etorri zirela Zornotzara.

Senior mailako emakumezkoen lasterketan Albertina Dias portugaldarra nagusitu zen. Oso karrera polita izan zen. Eta gizonetzkoen lasterketan ikusi genuena txapela kentzeko modukoa izan zen. Kirui anaiak, kenyarrak noski, aurre hartu zien gainontzeko lorrikalariei epaileak tiroa jaurti zuenetik.



Lasterketa osoan euren ritmo bizia jarri zuten eta bukatzeko itzuli bi falta zirenean beste kenyar bat, William Sijeik, bat egin zuen Kirui anaiekin. Azken honek irabazi zuen Munduko Kross txapelketa eta Kenyak gaur egun duen potentziala argi ta garbi erakutsi zuen.

Martin Fiz arabarrak hamalau garren postuan bukatu zuen lasterketa eta egia esan behar badugu, denok uste genuen baino postu hobeagoa lortu zuen. Baliteke Larreako konbentuko ortuariz indarturik. Karmeldarren paradisu hartan egon bait ziran konzentratuak Espainiako eta beste bost nazioetako korrikolariek.

Horrelako Munduko txapelketetan denetarik gartatzen da. Milaka eta milaka lagun artean izaten dira gero kontatzeko bitxikeriak. Adibidez, ingelesez komentarioak egiten zuen neskari gertatutakoa. Oso urduri jarri zen neskak haur eta komentario gehienak oker egin zituen. Publikoa konturatu egin

zen eta barreak entzun genituen. Baina niri gauza bat burutatzen zait. Nor ez da urduri jartzen 20.000 pertsonen aurrean hitz egin behar badu? Seguru nago hurrengoan hobeto egingo duela.

Beste pasadizo barregarria Zambiako neskatillek eskutik etorri zen. Hauek «top-less» edo biluzik korritzeko ohitura dute eta Zornotzan ere horrela egin nahi zuten baina epaileak ez zituen utzi. Kamiseta batzuk aurkitu eta jantzi arazi zieten, baina kamisetak handiegia ziren eta euren bularrak alde batetik bestera ibili ziren lasterketa osoan. Ez zuten lasterketa irabazi baina txalo eta piropo ugari jaso zituen.

Zenbakiek garrantzi handia izaten dute ere horrelako ekitaldietan. Zirkuitoa seinalatzeko 7.800 estaka jarri ziren. 4.200 kotxe sartu ziren Zornotzara egun horretan. 290 kazetari izan ziren lasterketen herri emateko. 800 boluntario inguru izan ziren antolaketa batzordeari laguntzen eta guztira 20.000 lagun inguru bildu ziren jauregibarriko zelaietan.



Azkenean dena ondo atera zen eta Zornotzaren izena internazionala bihurtu zen. Denon buruan galdera bat geratu da azkenean. Merezi zuen horrelako munduko kross txapelketa bat antolatzea? Nik baietz uste dut. Eta Zornotzan gehienok ere bai.

Jabi Atutxa



**ESTUDIO
FOTOGRAFICO**

ARGALKARI

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)*



ARBEL S.L.
VIDEO PROFESIONAL

San Miguel kalean, 14 Urrut: 673 0509 48340 Amorebieta	Trañabarren, 13 Bloque 1-4 Urrut: 681 1009 48220 Matiena (Abadiano)
--	---

JUAN MANUEL SASUATEGI AVISA: 444 3500 - Abonado 868